

*Abenduaren 3a, Larunbata*

*Olentzero maitea,*

*Denborak hain azkar ihes egiten duela jakiteak beldurtu egiten nau. Izan ere, orain dela gutxi ikasi nuen bizikletaz ibiltzen eta dagoeneko banago, ordea, unibertsitatera joateko prest.*

*Ziur asko hori ez dela arrazoi nahikoa beldurtzeko pentsatuko duzu, baina, egia esan denborak aurrera egiteaz gainera, biziko ditudan momentu horiek hil baino lehen behar bezala ez gozatzea ere kezkatzen nau.*

*Izan ere, zaila da dauzkagun ametsak betetzea noiz hilko garen jakin gabe. Baina, are zailagoa da, nire ustez, heriotza hurbil daukagula jakitea eta hori konpontzeko irtenbiderik ez aurkitzea gure bizitza egoera jakin batzuen esku dagoelako. Horren adibide dira, esate baterako, gaixoak, jatekorik ez dutenak edo bortizkeria pairatzen dutenak.*

*Bizi naizen bitartean pertsona horien alde milaka mugimendu egitea eta milaka laguntza ematea gustatuko litzaidake, baina mundua nola doan ikusita eta boterea garrantzia duen gauza bakarra dela jakinda, inork ezin izango duela haien alde behar bezala borrokatu ikasi dut.*

*Horregatik guztiagatik eta nire ametsak alde batera utzita, gelditzen zaidan denbora benetan gozatu behar duen norbaiti ematea da nire aurtengo Gabonetako nahia. Nik ez dut ezer galduko, baina pertsona horrek bizitza oso bat irabaziko du.*

*Nire gutuna irakurriko duzun itxaropenarekin eta eskatutakoa kontuan izango duzulakoan, agurtzen zaitut.*

*Musu handi eta besarkada bat*